

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2024an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko, hiria kanpoan sustatzeko eta produktu eta esperientzia turistikoko berriak sustatzeko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorriari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko maiatzaren 17an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko, hiria kanpoan sustatzeko eta produktu eta esperientzia turistikoko berriak sustatzeko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hila-beteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

Deialdi hau dagozkion oinarrien eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren arabera arautuko da (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2021-2024) aurreikusten dira; aipatutako plana 08_08_v02 fitxaren bidez aldatu da, zeina 2024ko maiatzaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Planak dirulaguntza-ildo honen barruan kokatzen ditu laguntza horiek: turismoa sustatzeko eta hiria sustatzeko ekintzak, Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzen, hiria kanpoan sustatzera eta produktu eta esperientzia turistiko berriak sustatzera bideratuak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da baldintzak arautzea Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzearekin, hiria kanpoan sustatzearekin eta produktu eta esperientzia turistiko berriak sustatzearekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko, juridikoak nahiz legez eraturako entitateei laguntzak emateko, konkurrentzia-erregimena baliatuz.

Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

- Hiriaren jarduera ekonomikoaren onerako diren jarduerak babestea.
- Berariaz indartzea turismo-eskaintza eta horrek jarduera ekonomikoarekin duen lotura.
- Hiritik kanpo proiektzioa duten jardueren eskaintza bultzatzea.
- Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea.

Laguntzek honako hiru laguntza-ildo hauek biltzen dituzte:

1. ildoak: Vitoria-Gasteiz egoitza izango duten ekitaldiak eta biltzarrak antolatzea.

Biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak eta bestelako ekitaldiak antolatzea lagunduko da diruz, haien ezaugarriengatik beste hiri, erkidego edo herrialde batzuetako bisitariak erakartzen dituztelarik.

2. ildoak: Vitoria-Gasteizen egin eta hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatzen duten ekitaldiak kanpoan promozionatzea.

Diruz lagunduko dira Vitoria-Gasteizen egiten diren biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak edo bestelako ekitaldiak kanpoan promozionatu eta komunikatzeko ekintzak barne hartzen dituztenak, estatuko zein nazioarteko merkatuetan hiriaren irudia sustatzeko erreferentziazko turismo-helmuga jasangarri gisa.

Apartatu honetan sartuko dira, besteak beste:

- Azoketan parte hartzea.
- Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo zuzeneko aurkezpenak egitea.
- Hemengoak ez diren preskriptoreak hirira bisitan etortzea hiria kanpoan promozionatzeko.
- Komunikazio-kanpaina garatzea online eta offline.

3. ildoak: Hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa promozionatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzea.

Turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortzeko dirulaguntzak emango dira, baita haiek sustatu, merkaturatu, hedatu eta komunikatzeko eta publikoak erakartzeko ekintzak ere.

Atal honetan sartzen dira nazioko eta nazioarteko merkatuetan turismo-helmuga jasangarri gisa Vitoria-Gasteizen irudia sustatzen duten produktu eta esperientzia turistiko guztiak. Gainera, lehentasuna emango zaie enogastronomiarekin, ekoturismoarekin, kulturarekin eta kirolarekin lotutako produktuei.

3. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren proiektuek jaso ahalko dute dirulaguntza.

Abenduaren 31ra arte egindako gastuak eta 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen jaulkitako eta ordaindutako fakturak baino ez dira diruz lagunduko.

Hiru laguntza-ildo daude, eta ildo bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da.

1. Ildoa: Vitoria-Gasteiz egoitza izango duten ekitaldiak eta biltzarrak antolatzea.

1. Hirian etorkizunean egin daitezkeen ekitaldi edo biltzarretarako hautagaitza-proiektuetatik eratorritako gastuak: online eta offline diseinu-lanak, aurkezpenetarako lekualdatze-gastuak, alderantzizko eta zuzeneko jardunaldietan izena ematea (kasu horretan, erakunde sustatzailea eta antolatzailea zehaztu beharko dira) eta abar.

2. Ekitaldi edo biltzarren garapenarekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak: ikus-entzunezko baliabideak, tresna teknologikoak, cateringa, itzulpengintza eta interpretazioa, laguntzaileak, garraioa, idazkaritza teknikoa, zerbitzu eta jarduera osagarriak eta abar.

3. Ekitaldian parte hartzen duten kanpoko hizlari, aditu eta aurkezle/moderatzaileen ordain-sariei, bidaiei, ostatuari eta dietei dagozkien gastuak.

4. Ekitaldi edo biltzarrerako erabiliko diren espazioen alokairu-gastuak, espazio eta eraikin publikoen alokairuagatik ordaindutako tasak barne.

2. ildoa: Vitoria-Gasteizen egin eta hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatzen duten ekitaldiak kanpoan promozionatzea.

1. Promozioa online egiteko gastuak. Kontzeptu horren barruan hauek onartuko dira: marketin programatikoa, bilatzaileetako publizitatea (SEM eta SEO), posta elektronikoko bidezko marketina, gizarte sareetako publizitatea (Facebook, Youtube, Instagram...), edukien marketina (branded content eta inbound marketing), eta abar.

2. Promozioa offline egiteko gastuak: euskarri inprimatuak, hedabideetan ekitaldiak zabaltzea publizitatea eginez, hala nola irratan, telebistan, prentsan, publizitate-paneletan, hiri-altzarrietan, errotuluetan, garraioko publizitatean, igogailuetan eta abarretan. Elkarrizketen, programen edo prentsako, telebistako edo irratiko artikuluen gastuak ere sartzen dira.

Hedapen digitala lehenetsiko da material suntsikorren aurretik.

3. Ekitaldiaren sustapenarekin (online zein offline) zuzenean loturiko zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak: diseinu grafikoari dagozkion gastuak; eskuorriak eta kartelak egiteari, argazki- eta bideo-bankuei eta bideoei loturikoak; web-diseinua, bannerrak, web orriak, frameak eta pop-upak sortzearekin loturikoak, eta beste komunikazio-elementu batzuk lantzeari dagozkionak. Digitalki banatzeko euskarrien diseinua lehenetsiko da, material suntsikorren aurretik.

4. Hiriaren datozen kanpoko preskriptoreen bidaia-, ostatu- eta dieta-gastuak, baita ekitaldiaren antolatzaileen ere, sustapen-ekintzak (azokak, aurkezpenak eta abar) egiteko hiritik kanpo doazenean.

Proiektu bera 1. eta 2. Ildoetara aurkeztu ahalko da. Lehenengoan, proiektua antolatzeko gastuak aurkeztuko dira, eta bigarrenetan, kanpo-sustapenarekin zerikusia dutenak. Eskabide bat egin beharko da proiektu eta laguntza-ildo bakoitzeko.

3. ildoa: Hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa promozionatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzea.

1. Produktuak eta esperientziak sortzeko gastuak, fase guztietan (diseinua, abiaraztea eta ebaluazioa). Kontzeptu honetarako onartuko dira zerbitzu tekniko eta profesionalen fakturak, baliabide material, digital edo teknologikoengatik: material inprimatuak, infografiak, argazkiak, bideoak, aplikazioak, bisita gidatuetarako audio-sistemak (ez dira diruz lagunduko kutsadura akustikoa sortzen duten sistemak), mugikortasun jasangarriko elementuak, orientazio geografikoak, irisgarritasuna errazteko tresnak eta abar.

2. Promozioa online egiteko gastuak. Kontzeptu horren barruan hauek onartuko dira: marketin programatikoa, bilatzaileetako publizitatea (SEM eta SEO), posta elektronikoko bidezko marketina, gizarte sareetako publizitatea (Facebook, Youtube, Instagram...), edukien marketina (branded content eta inbound marketing), eta abar.

3. Promozioa offline egiteko gastuak: euskarri inprimatuak, hedabideetan ekitaldiak zabaltzea publizitatea eginez, hala nola irratian, telebistan, prentsan, publizitate-paneletan, hiri-altzarietan, errotuluetan, garraioko publizitatean, igogailuetan eta abarretan. Elkarrizketen, programen edo prentsako, telebistako edo irratiko artikuluen gastuak ere sartzen dira.

Hedapen digitala lehenetsiko da material suntsikorren aurretik.

4. Produktu edo esperientzia turistikoa berrien sustapenarekin (online zein offline) zuzenean loturiko zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak.

5. Produktu eta esperientzia turistiko berriak ezagutzeko hirira datozen kanpoko preskrip-toreen bidaia-, ostatu-, eta dieta-gastuak, baita produktu eta esperientzia turistiko berrien sor-tzaileenak ere, haiek promozionatzeko ekintzak (azokak, aurkezpenak eta abar) egiteko hiritik kanpo doazenean.

4. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko:

1. Deialdi honen 3. oinarrian diruz lagun daitekeen gastutzat berariaz jotzen ez den gastu oro, edo ekitaldien antolaketarekin (1. ildoak), sustapenarekin (2. ildoak) edo produktuen sorkuntza eta sustapenarekin (3. ildoak) zuzenean lotuta ez dagoen edozein gastu.

2. 1. eta 2. ildoetan, ez dira diruz lagunduko honelako ekintzen antolaketa eta sustapena: ga-lak eta desfileak; sariak; lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza arautuarekin lotu-tako jarduerak; ekitaldi akademiko, erlijiozko, politiko edo sindikalak, edo entitate eskatzailearen bazkideentzat soilik egindako proiektuak.

3. Aipatutako jarduerekin lotutako zergei eta/edo tasei, errekarquei eta administrazio-zeha-penei dagokienez, ordenantzen 30.8 artikulua aplikatuko da.

4. Enpresa/entitate onuradunen ohiko funtzionamendu-gastuak.

5. Bulegoko informatika-ekipoak eta telefonia mugikorra.

6. Opariak.

7. Merchandisinga, salbu eta turismo-ekitaldi edo -produktu baten kanpo-sustapenerako baino ez bada eta hala justifikatzen bada.

8. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 30. artikuluan kanpo utzitakoak.

Ematen diren laguntzak hiru ildoetako edozeinetan aurkeztutako proiektuarekin lotuta on-dasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuei baino ezingo zaizkie egotzi, eta inola ere ez enpresa antolatzailearen inbertsio eta/edo amortizazioei.

Hiru dirulaguntza-ildoetako edozeinetan aurkezten diren proposamenetan ezingo da sartu Vitoria-Gasteizko Udalak onetsitako udal planei kalte egingo liekeen ekintzarik, ezta ordena-mendu juridikoak babesten dituen oinarritzko eskubideetako edozein urratzea lekarkeenik ere, hartara pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespeta daitezten.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak ber-matzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak

Pertsona fisikoak, juridikoak nahiz legez eraturik dauden entitateak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.

* 1. eta 2. ildoetan, ez da derrigorrezkoa izango helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen edukitzea, diruz lagunduko den proiektua hiriko sektore turistikorako interes bereziki jotzen denean edo sektore horrekin zuzenean lotuta dagoenean. Halakotzat joko dira irizpide hauek guztiak betetzen dituzten proiektuak (proposamenean zehaztu eta justifikazioan frogatu beharko dira):

– Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 300.

– Bertaratutako publikoaren jatorria: estatukoa edo nazioartekoa.

– Ekitaldiaren gutxieneko iraupena: 2 egun.

– Tokiko 5 hornitzaile kontratatzea, gutxienez.

a) Baldintza horiek dirulaguntzaren prozesu osoan zehar betetzea (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

b) Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2. artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean ez egotea.

c) Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, korporazio publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

7. Oinarria. Baliabide ekonomikoak

2024ko udal aurrekontuko 08.10.4331.471.04 partidaren kontura —“Toki Garapenerako Bulegoa – Hiria sustapena” — finantzatu diren deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak; 130.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura, honela banatuta:

1. ildoak: 70.000,00 euro.

2. ildoak: 30.000,00 euro.

3. ildoak: 30.000,00 euro.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariekin erabakia dela medio, eta laguntza-deialdia ebatzi aurretik, deialdi honetako zuzkidura ekonomikoa handituz izango da —Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik—, baldin eta udal sail horrek kudeatzen dituen laguntza-deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

Eskabideak balioetsi ondoren, haiek ebatzi eta gero ildoetako batean edo gehiagotan erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberako kopurua beste ildoetara gehitzeko proposatu ahalko du balioespen-batzordearen aktak. Hurrenkera honen arabera esleituko da soberan dagoen zenbatekoa: lehendabizi, soberan dagoen aurrekontua 3. ildoari esleituko zaio; ildo horretako beharrak bete ondoren, soberan dagoena 1. ildoari esleituko zaio, eta, azkenik, soberan dagoen aurrekontua 2. ildoari esleituko zaio.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomikoak.

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira udalaren beraren beste sail edo zerbitzu batzuek edo hari atxikitako beste erakunde batzuek xede, programa edo jarduera bererako ematen dituzten bestelako dirulaguntzekin. Orobat, bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio batzuek nahiz edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ematen dituen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, diruz lagundutako jarduketaren kostua gainditzen ez bada. Ondorio horietarako, diruz lagundutako jarduketaren kostutzat joko dira hari egotz dakizkiokeen gastu guztiak, ez soilik eskabide honetan aurkeztu, onetsi eta justifikatutakoak.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

Hori dena, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan (bereziki, 887/2006 Errege Dekretuaren 32. artikulutik 34.era) eta 37.3 artikuluko 3. puntuan xedatutakoaren arabera.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, aldezturik Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuta, eta hilabeteren buruan bukatuko.

Enpresek eskabide bat egin beharko dute proiektu eta laguntza-ildo bakoitzeko (gehienez bi proiektu ildo bakoitzeko).

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko da, erregistro elektronikoaren bitartez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

Eskabidea postaz bidaltzen bada, gomendatzen da mezu elektroniko bat igortzeko bidalketa horren berri emateko, bidalketaren ordezkagiria erantsita, helbide honetara: sectorturismo@vitoria-gasteiz.org.

9.3. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

10.1. Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

– Eranskina: Eskabide inprimaki normalizatua <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombbre=93222.pdf>.

– Eranskina: beste diru-sarrera batzuen aitortpena <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombbre=95837.pdf>.

– Eskabidea egiten duen entitateari buruzko dokumentazioa:

– Entitatearen eta haren ibilbidearen deskribapen laburra.

– Ekonomia jardueren gaineko zergan altan egotearen ziurtagiria.

– Pertsona fisikoa bada: nortasun-agiriaren fotokopia.

– Pertsona juridikoa bada:

a) IFKren kopia.

b) Enpresaren eratze-eskriuren kopia.

c) Ordezkaritza-ahalordearen kopia.

d) Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Irabazi asmorik gabeko entitateen kasuan:

a) IFKren kopia.

b) Erakundearen estatutuen fotokopia.

c) Vitoria-Gasteizen dituen kargu eta kideen zerrenda zenbakitua eta eguneratua, laguntza eskatzen den egunean.

d) Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Memoria deskriptiboa: egin nahi den proiektuaren memoria, berariaz aipatuz balioesteko den irizpide bakoitza, emaitzen aurreikuspena eta proiektuaren aurrekontua. Gutxienez 5 orri-alde A4 tamainan, gehienez 10.

10.2. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak bete-zeari dagokionez, ofizioz begiratuko da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahalko du ofiziozko egiaztapenerako baimena (I. eranskina: eskabide-inprimaki normalizatua); kasu horretan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

11. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik), eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1. Norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena izango da laguntzak emateko prozedura, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikuluan eta III. kapituluaren (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

12.2. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauean aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde tekniko bat eratu da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria (Maite de Juan Romaniega) edo hark eskuordetzen duena.

– Kideak: Biltzar eta Turismo Zerbitzuko burua (Javier Estebanz González) edo hark eskuordetzen duena.

– Idazkaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Proiektuen Zerbitzuko burua (Eva Mesanza Legarda) edo hark eskuordetzen duena.

Kideren baten absentsia, gaixotasuna edo hirugarrenei utzitako eskuordetzea dela eta batzordearen osaera aldatzen bada, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen baten bidez jakinaraziko da balioespen-batzordearen osaera, hura eratu aurretik, interesdun orok errekusatzeko eskubideaz baliatzerik izan dezan legeak ezarritako kasu eta baldintzetan.

12.3. Zeregin hauek izango ditu balioespen-batzordeak:

1. Jasotako eskabideen balioespen teknikoak aztertzea, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariek haiei buruzko txostena egin ondoren.

2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko/atzera egiteko proposamenak egitea, eta organo instrukzio-egileari helaraztea Tokiko Gobernu Batzarrak onets ditzan.

3. Oinarri hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki baten bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, batzordeak proposamena egin ondoren.

12.4. Enpresa onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo justifikazioaren ondorioz aurretik emandako dirulaguntzak itzultzen badira, onuradunen artean hainbanaketa egingo da, eta zenbatekoa proportzionalki banatuko da, lortutako puntuazioaren arabera, eskatutako zenbatekora edo baimendutako gehienekora iritsi arte.

13. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatuko da epe hori.

dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Betekizun eta baldintzak betetzen direla justifikatzea udalaren aurrean, baita jarduera aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik gauzatu dela eta dirulaguntza ematea ekarri zuen helburua bete dela ere.

2. Erakunde-markaren hedapena: Vitoria-Gasteizko Udalaren erakunde-marka agertu beharko da diruz lagundutako jardueren publizitate orotan, marka inprimatzea edo ikustea ahalbidetzen duen neurrian. Erakunde-markak behar ez bezala erabiltzea saihestu beharko du, zehazki, ezin izango dira markaren eta haren elementuen altuera/zabalera proportzionaltasuna, formak, posizioa, koloreak, tipografiak eta trazuak aldatu.

3. Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita haren Kontu Hartzailtza Nagusiari dagokion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

4. Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea. (Eranskina: beste diru-sarrera batzuen aitortpena).

5. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

6. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

7. Emandako laguntza onartzea. Hamar eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote —eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik kontatuta—, onartu egiten dutela ulertuko da.

8. Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu. guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarte, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauei jarraituko zaie aurkezten diren proiektuak balioesteko:

Dirulaguntza jaso ahal izateko, ildo bakoitzean aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dute balioespen-irizpideen arabera.

| 1. Ildoa | | |
|--|-----------------------|------------|
| GASTEIZ EGOITZATZAT IZANGO DUTEN EKITALDIAK ETA BILTZARRAK ANTOLATZEA | GEHIENEZKO PUNTUAZIOA | |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren ezaugarriak | Max. | 45 |
| Eremu geografikoa (lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa). | 9 | |
| Parte-hartzaileen kopurua (bertaratuak eta <i>streaming</i> bidezkoak). | 9 | |
| Denbora-zehaztapena eta data (iraupena, bertan egingo diren gauen kopurua, garaia). | 9 | |
| Enpresa lokalaren partaidetza proiektuan. | 9 | |
| Ekitaldiak etorkizunean beste jardunaldirik ekartzeko aukera. | 9 | |
| Sustapen ekintzak | Max. | 20 |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren hedapen-ekintzen kopurua eta deskribapena, eta horietako bakoitzeko parte-hartzaile/eraginaren zenbatespena | 10 | |
| Hiriaren hedapen-ekintzen kopurua eta deskribapena, bertako turismo-, merkataritza- edo ostalaritza-baliabideak, eta horietako bakoitzeko parte-hartzaile/eraginaren zenbatespena | 10 | |
| Entitate eskatzailearen balioespena | 10 | 10 |
| Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia. | 5 | |
| Proiektzioa eta jarduera-eremua (lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa). | 5 | |
| Jasangarritasuna | Max. | 15 |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren jasangarritasun-neurriak (helburuak/jarduerak/adierazleak). Adibidez: energia-aurrezpena, mugikortasun jasangarria, km0 produktuen erabilera, tokiko enpresen eta ekoizleen kontratazioa edo lankidetzak ekitaldiaren garapenean, etab | 5 | |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurrien proposamena. | 5 | |
| Erronka Garbia ziurtagiria edo antzekoa duen ekitaldi jasangarria. | 5 | |
| Euskara | Max. | 5 |
| Euskara erabiltzea ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean (webgunea, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, txostenak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz). | | |
| Berdintasuna | Max. | 5 |
| Gizartean eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen artean gizarte berdintzalea lortzeko, sexismoa, desberdintasuna edo sexuagatiko diskriminazioa orekatzeko, edo plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-faseetan genero-ikuspegia sistematikoki aplikatzeko. | | |
| GUZTIRA | | 100 |

| 2. Ildoa | | |
|--|-----------------------|------------|
| GASTEIZEN EGINDAKO EKITALDIAK KANPOAN SUSTATZEA, HIRIAK TURISMO-HELMUGA JASANGARRI GISA DUEN IRUDIA SUSTATZEKO | GEHIENENKO PUNTUAZIOA | |
| Sustapen ekintzak eta Gasteiz posizionatzea | Max. | 45 |
| Ekitaldiaren eremu geografikoa (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa) eta xede duen hartzaile-taldearen profila. | 9 | |
| Ekitaldiaren hedapen-ekintzen kopurua eta deskribapena, eta horietako bakoitzeko parte-hartzaile/eraginen zenbatespena | 9 | |
| Hiriaren hedapen-ekintzen kopurua eta deskribapena, bertako turismo-, merkataritza- edo ostalaritza-baliabideak, eta horietako bakoitzeko parte-hartzaile/eraginen zenbatespena | 9 | |
| Sustapen-ekintzen denbora-zehaztapena eta aurrekontua | | |
| Gasteiz turismo-helmuga jasangarri gisa posizionatzeko ekarpena. | 9 | |
| Ekitaldiaren ezaugarriak | Max. | 20 |
| Gasteizen egindako edizioen kopurua. | 5 | |
| Parte-hartzaileen eta Gasteizen emandako gauen kopurua | 5 | |
| Enpresa lokalen partaidetza proiektuan. | 5 | |
| Ekitaldiak hirian duen inpaktua. | 5 | |
| Entitate eskatzailearen balioespena | Max. | 10 |
| Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia. | 5 | |
| Proiektzioa eta jarduera-eremua (lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa). | 5 | |
| Jasangarritasuna | Max. | 15 |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren jasagarritasun-neurriak (helburuak/jarduerak/adierazleak). Adibidez: energia-aurrezpena, mugikortasun jasagarria, km0 produktuen erabilera, tokiko enpresen eta ekoizleen kontratazioa edo lankidetzak ekitaldiaren garapenean, etab | 5 | |
| Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurrien proposamena. | 5 | |
| Erronka Garbia ziurtagiria edo antzekoa duen ekitaldi jasagarria. | 5 | |
| Euskara | Max. | 5 |
| Euskara erabiltzea ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean (webgunea, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, txostenak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz). | | |
| Berdintasuna | Max | 5 |
| Gizartean eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen artean gizarte berdinzalea lortzeko, sexismoa, desberdintasuna edo sexuagatiko diskriminazioa orekatzeko, edo plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-faseetan genero-ikuspegia sistematikoki aplikatzeko. | | |
| GUZTIRA | | 100 |

| 3. lida: BALIOESPEN IRIZPIDEAK | | |
|--|-----------------------|------------|
| TURISMO-PRODUKTU ETA ESPERIENZIA BERRIAK SORTZEA ETA SUSTATZEA, HIRIAK TURISMO-HELMUGA JASANGARRI GISA DUEN IRUDIA SUSTATZEKO | GEHIENENKO PUNTUAZIOA | |
| Produktu edo esperientzia berriaren ezaugarriak | Max. | 40 |
| Produktua edo esperientzia lehentasuneko alorretakoa da: enogastronomia, ekoturismoa, kultura, kirola. | 10 | |
| Produktu edo esperientzia integrala da (eragileen arteko sinergiak sortzea edo aprobetxatzea, tokiko enpresen arteko lankidetzak, hainbat produkturen konbinazioak). | 10 | |
| Gutxi gorabeherako parte-hartzaileen/erabiltzaileen kopurua. | 10 | |
| Produktuaren berrikuntza/originaltasuna. | 10 | |
| Gasteiz sustatzea eta posizionatzea | Max. | 30 |
| Xede duen eremu geografikoa (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa) eta xede duen hartzaile-taldearen profila. | 8 | |
| Produktua hedatzeko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta horietako bakoitzean parte hartzen duten pertsonen/eraginen kopurua. | 8 | |
| Sustapen-ekintzen denbora-zehaztapena eta aurrekontua | 8 | |
| Gasteiz heimuga turistiko jasangarri, enogastronomiko, ekoturistiko, kultural eta kirol gisa posizionatzeko ekarpena. | 8 | |
| Entitate eskatzailearen balioespena | Max. | 10 |
| Esperientzia antzeko turismo-produktuak sortzen eta abian jartzen. | 5 | |
| Esperientzia produktu turistikoak sortzen eta abian jartzen lehentasuneko alorretan: enogastronomia, ekoturismoa, kultura, kirola. | 2,5 | |
| Produktu-klubetako kide izatea edo turismo-zigiluak edukitzea: Ekoturismo Kluba, Euskadi Gastronomika, Euskadi konfidentziala, Turismo Kode Etikoa edo eskualde- edo estatu-mailako erakundeek sustatutako beste batzuk. | 2,5 | |
| Jasangarritasuna | Max. | 10 |
| Produktuak jasangarritasun-neurriak jasotzen ditu: | | |
| Adibidez: energia-aurrezpena, mugikortasun jasangarria, km0 produktuen erabilera, tokiko enpresen eta ekoizleen kontratazioa edo lankidetzak ekitaldiaren garapenean, etab | 5 | |
| Produktuak edo esperientziak sortutako ingurumen-inkaktuak konpentsatzeko neurriak jasotzen ditu. | 5 | |
| Euskara | Max. | 5 |
| Euskara erabiltzea ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean (webgunea, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, txostenak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz). | | |
| Berdintasuna | Max. | 5 |
| Gizartean eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen artean gizarte berdintzalea lortzeko, sexismoa, desberdintasuna edo sexuagatiko diskriminazioa orekatzeko, edo plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-faseetan genero-ikuspegia sistematikoki aplikatzeko. | | |
| GUZTIRA | | 100 |

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Laguntzaren zenbatekoa onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da gehienez ere. Edonola ere, aipatutako ehuneko aplikatuz lor daitekeen gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da 15.000,00 eurotik gorakoa izan 1. ildoan aurkeztutako proiektu bakoitzerako, eta 5.000,00 eurotik gorakoa 2. eta 3. ildoetan aurkeztutako proiektu bakoitzerako.

Entitate eskatzaileetako bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, prozedura hau baliatuko da:

– Lehenengo, eskabideak aztertu eta puntuatuko dira, laguntza-ildo bakoitzaren balioespen-irizpideen arabera. Ildo horretako eskabide guztiei esleitutako puntuak batuko dira.

– Bigarren, ildo bakoitzari dagokion diru-zenbatekoa zati ildo horretan lehiatzen diren eskabideen puntu guztiak egingo da. Emaizta puntu bakoitzeko diru balioa izango da; hori eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuak biderkatuz lortzen den kopurua izango da bakoitzarentzako dirulaguntzarako proposamena.

Ateratzen den kopuruak ezin izango du inolaz ere eskatutakoa gainditu, ezta ildo bakoitzeko adierazitako gehienekoak ere.

Kopuruak esleitu ondoren soberako saldirik bada, hainbanaketa egingo da, eta kopuru hori lortutako puntuazioaren arabera banatuko da, eskatutako kopurura edo baimendutako gehienekora iritsi arte.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Honela ordainduko da dirulaguntza:

– Ematen den unean, laguntzaren ehuneko 60.

– Gainerako ehuneko 40a, justifikazio-dokumentuak jaso eta Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpena eman ondoren. Ebazpen horrek txosten tekniko bat hartu beharko du oinarritzat, zeinek bermatuko baitu justifikazio gisa aurkeztutako dokumentazioak laguntzak emateko oinarri hauetan xedatutakoa betetzen duela.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delako.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean adierazten duen kontu korrontean.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

19.1. Justifikatzeko dokumentazioa bi hilabeteko epean aurkeztu behar da, ekitaldia, biltzarra edo turismo-esperientzia/-produktua abian jartzen denetik zenbatzen hasita, edo, nolana ere, 2025eko otsailaren 28a baino lehen.

Egindako gastuak egiaztatzeko fakturak gehienez 2025eko urtarrilaren 31n jaulki eta ordaindutakoak izan beharko dira.

Udalaren webgunean eskura daitezke justifikatzeko formularioak (eranskinak):

<http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones>.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

19.2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Vitoria-Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik.

19.3. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 35. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, entitate onuradunek justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu ahalko dute, zeinak honako hauek jaso beharko baititu:

– Egindako proiektuaren eta lortutako emaitzen memoria deskriptiboa. Horretarako, datu hauek erantsiko dira: dirulaguntza jaso duen jardueraren harira egindako irudi, egitarau, argitalpen eta kartelak, hedabideetako agerpenak eta bestelako dokumentazio grafiko nahiz idatzia. (Gehienez, 15 orri, A4 tamainan). Atal honetan, gainera, Biltzar eta Turismo Zerbitzuak proiektuaren azken datuei buruz emango duen fitxa aurkeztu beharko da. Fitxa horren helburua izango da ekitaldi bakoitzaren tipologiari eta hirian duen eraginari buruzko informazioa lortzea.

– Proiektuaren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduarekin batera (eranskina: justifikazio-kontu sinplifikatua). Alderdi hauek hartu beharko ditu barne:

1. Erantzukizunpeko adierazpena.

2. Diruz lagundutako proiektuarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data. Era berean, ezinbestekoa da beste dokumentu batean zehaztea deskribapen-memorian zehaztutako ekintzetatik zeini dagokion horietako bakoitza.

3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuz, bazkideek diruz lagundutako jarduerak egiteko jarritako kuotak barne. Diru-sarrera zenbatekoa den eta zein entitatek eman duen adieraziko da.

Ordenantzaren 35.5 artikuluari jarraituz, organo kudeatzaileak egokitzen dituen eta dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko aukera ematen duten justifikanteak egiaztatuko ditu, laginketa-teknikaren bidez. Horretarako, hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahalko dio pertsona edo erakunde onuradunari.

Entitateen lagina lortzeko, ildo bakoitzeko entitate onuradunen zerrenda hartuko da oinarritzat, alfabetikoki ordenatua, eta izapidetzen diren dossierren ehuneko 30 aplikatuko da gutxienez; horien zenbatekoak dirulaguntza-deialdi honetarako bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 izan beharko du gutxienez.

Entitateak laginketa-prozedura sistematiko baten bidez hautatuko dira. Metodo horren bidez, dossier-kopurua laginketa kopuruaz (izapidetutako dossierren ehuneko 30) zatituko da, laginketa-tarte bat lortzeko. Ondoren, ausaz aukeratuko da laginaren lehen elementua, eta, ondoren, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten gainerako entitateak hautatuko dira.

Adibide gisa: entitateen kopurua 27koa bada, eta egiaztatutako entitateen gutxienerako portzentajea ehuneko 30ekoa (hots, 9 entitate), aurreko bi zenbakien arteko zatidura izango den laginketa-tartea lortuko dugu; kasu honetan, 3. Ondoren, ausaz 1 eta 3 bitarteko zenbaki bat hautatuko da. Ausaz aukeratutako zenbakia 2a bada, adibidez, 2, 5, 8, 11, 14, 17, 20, 23 eta 26 zenbakiak dituzten dossierrek osatuko dute egiaztatu beharreko entitateen lagina.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Deialdi honetan adierazten diren betebeharrak ez betetzea, ez justifikatzea edo behar adina ez justifikatzea laguntza itzularazteko arrazoi izango da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzultzeko kausei, preskripzioari, itzultzeko betebeharra duten pertsonen eta itzulketa-prozedurari dagokienez.

Behar ez bezala jasotako funts publikoen gainera, dirulaguntza ordaintzen den egunetik eta hura itzuli beharra dagoela erabakitzen den unera arteko aldiari dagozkion berandutze-interesak galdutako dira. Itzuli beharreko dirulaguntzaren zenbatekoaren gainean kalkulatu dira.

Zuzenbide publikoko sarreretat joko dira itzuli beharreko zenbatekoak, eta halako diru-sarrerari dagokienez, Vitoria-Gasteizko Udalaren zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko dira.

Baldin eta erreklamaturako zenbatekoak ez bazaizkio itzultzen Vitoria-Gasteizko Udalari borondatezko aldian, premiamendu-bideari ekingo zaio kobratzeko, indarrean dagoen araudiaren ildotik.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Pertsona onuradunak adierazi beharko du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Gainera, datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartuko du.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu transexualak genero-identitateagatik ez baztertzei eta haien eskubideak aitortzei buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakartako printzipioak: giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Hartara, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

– Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute agiri, publizitate-kanpaina, irudi eta material orotan, emakumeen diskriminazio-irudiak eta estereotipo sexistak oro ekidinez, eta irudietan zenbait balio sustatu beharko dituzte, esaterako berdintasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitateen aniztasuna. Gainera, sexuaren aldagaia kontuan hartuko da ekitaldien asistentziari buruzko estatistiketan eta datu-bilketan.

– Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

– Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtatuz ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologizazioa, biktimismoa eta pinkwashinga saihesteko konpromisoa.

– Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokituz jotzen duen beste forma bat—.

– Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeke, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriaren arabera rol eta estereotipoak indartu gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 17an

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

ERANSKINAK

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

Eranskina: eskabide inprimaki normalizatua <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/87/83/93222.pdf>.

Eranskina: beste diru-sarrera batzuen aitortpena <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=95837.pdf>.

Eranskina: justifikazio-kontu sinplifikatua <https://v-g.eus/CJUS-001-24>.

Eranskin horrekin batera memoria ekonomiko bat aurkeztu beharko da, eta, bertan, ezinbestekoa da aurkeztutako gastu bakoitza deskribapen-memorian zehaztutako zein ekintza zehatzi dagokion aipatzea.

Memoria deskriptiboaren eredia, 1. ildoak:

1. Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren ezaugarriak:

- 1.1. Ekitaldiaren eremu geografikoa: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.
- 1.2. Parte-hartzaileen kopurua aurrez aurre eta streaming bidez.
- 1.3. Ekitaldiaren data. Ekitaldiaren iraupena. Hirian egiten diren gauen kopurua eta justifikazioa.
- 1.4. Proiektuan parte hartzekoak diren tokiko enpresen zerrenda.
- 1.5. Ekitaldiaren aldizkakotasuna eta Gasteizen berriz egiteko aukera.

2. Promozio-ekintzak:

2.1. Biltzarra, jardunaldia edo ekitaldia ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

2.2. Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

3.1. Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia.

3.2. Entitate eskatzailearen proiektzioa eta jarduera-eremua: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.

4. Jasangarritasuna:

4.1. Ekitaldirako jasangarritasun-neurriak. Aurreikusten diren helburuak, jarduerak eta adierazleak.

4.2. Ekitaldiak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurriak.

4.3. Erronka Garbia ziurtagiria edo antzekoa duen ekitaldi jasangarria.

5. Euskara:

Ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

6. Berdintasuna:

Ekitaldia antolatzean eta garatzean berdintasuna sustatzen duten ekintzak: emakumeek ehuneko 40 edo gehiago parte hartzea erakundearen erabaki- eta ordezkari-organoean, erakundearen oinarri sozialean, proiektuaren antolaketan eta exekuzioan.

Memoria deskriptiboaren eredu, 2. ildo:

1. Vitoria-Gasteiz sustatzea eta posizionatzea:

1.1. Ekitaldiaren eremu geografikoa (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa) eta xede-publikoaren profila.

1.2. Ekitaldia ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

1.3. Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

1.4. Sustapen jardueren maiztasuna eta aurrekontua.

1.5. Vitoria-Gasteiz turismo-helmuga jasangarri gisa kokatzen laguntzea.

2. Ekitaldiaren ezaugarriak:

2.1. Vitoria-Gasteizen egindako edizioen kopurua.

2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta ostatu-gauen kopurua.

2.3. Proiektuan parte hartzekoak diren tokiko enpresen zerrenda.

2.4. Ekitaldiak hirian duen inpaktua eta bertan egin diren gauen kopurua.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

3.1. Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia.

3.2. Entitate eskatzailearen proiektzioa eta jarduera-eremua: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.

4. Iraunkortasuna:

4.1. Ekitaldirako jasangarritasun-neurriak. Aurreikusten diren helburuak, jarduerak eta adierazleak.

4.2. Ekitaldiak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurriak.

4.3. Erronka Garbia ziurtagiria edo antzekoa duen ekitaldi jasangarria.

5. Euskara:

Ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

6. Berdintasuna:

Eragin sozial positiboa emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoa duen gizartea lortzeko: sexismoaren, desberdintasunaren edo sexuagatiko diskriminazioaren aurka egitea, edo genero-ikuspegia barne hartzea plangintza, exekuzio eta ebaluazio faseetan.

Memoria deskriptiboaren erdua, 3. ildo:

1. Produktu edo esperientzia berriaren ezaugarriak:

1.1. Produktua edo esperientzia lehentasunezko segmentuetan kokatzen da: enogastronomia, ekoturismoa, kultura, kirolak.

1.2. Produktu edo esperientzia oso bat da (eragileen arteko sinergiak sortzea edo baliatzea, tokiko enpresen arteko lankidetzak, zenbait produkturen konbinazioa).

1.3. Zenbatetsitako parte-hartzaileen/erabiltzaileen kopurua.

1.4. Produktuaren berrikuntza/originaltasuna.

2. Vitoria-Gasteiz sustatzea eta posizionatzea:

2.1. Ekitaldiaren eremu geografikoa (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa) eta xede-publikoaren profila.

2.2. Produktua ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

2.3. Sustapen jardueren maiztasuna eta aurrekontua.

2.4. Vitoria-Gasteiz turismo-helmuga jasangarri, enogastronomiko, ekoturistiko, kultural eta kirol-helmuga gisa kokatzen laguntzea.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

3.1. Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia.

3.2. Esperientzia turismo-produktu jasangarriak, enogastronomikoak, ekoturistikoak, kulturak edo kirolekoak sortzen eta abian jartzen.

3.3. Produktu-klubetako kide izatea edo zigilu turistikoak edukitzea: Ekoturismoko kluba, Euskadi Gastronomika, Euskadi Confidential, Kode Etiko Turistikoa edo eskualdeko edo estatuko erakundeek sustatutako beste batzuk.

4. Jasangarritasuna:

4.1. Produktuak edo esperientziak jasangarritasun-neurriak jasotzen ditu (helburuak/jarduerak/adierazleak).

4.2. Jarduerak edo esperientziak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurriak aurreikusten dira.

5. Euskara:

Produktuaren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

6. Berdintasuna:

Eragin sozial positiboa emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoa duen gizartea lortzeko: sexismoaren, desberdintasunaren edo sexuagatiko diskriminazioaren aurka egitea, edo genero-ikuspegia barne hartzea plangintza, exekuzio eta ebaluazio faseetan.